



ETXARRI 2012

EDIKTOA

2012KO EGUTEGIA

Etxarri Aranazko Osoko Bilkurak, 2012ko urtarrilaren 9an, erabaki hau hartu du, honako xedapen hauei jarraikiz: abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoetako enplegatuentzat urteko lanaldia ezartzen duena, hain zuzen ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren aplikazio eremuan sartzen direnentzat; 699/2011 EBAZPENA, ekainaren 24koa, Arriskuaren Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana kontuan harturik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2012ko lan egutegia onesten duena. Hauxe da erabakia:

1. 2012ko jaiegunen lan egutegi hau onestea, Etxarri Aranazko udal bulegoetarako:

Urtarrilaren 6a: Jaunaren Agerkundera.

Martxoaren 19a: San José.

Apirilaren 5a: Ostegun Santua.

Apirilaren 6a: Ostiral Santua.

Apirilaren 9a: Pazko astelehena.

Apirilaren 30ean: Zubia

Maiatzaren 1a: Langileen eguna.

Ekainaren 13a: San Kiriko.

Ekainaren 16a: San Adrian.

Abuztuaren 6,7 eta 8: Herriko Jaiak.

Abuztuaren 15a: Abuztuko Andre Maria.

Urriaren 12a: Espainiako Festa Nazionala.

Azaroaren 1a: Domu Santu.

Abenduaren 3a: San Frantzisko Xabierkoa.

Abenduaren 6a: Konstituzioaren eguna.

Abenduaren 8a: Ama Birjina Sortzez Garbia.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna.

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2012. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 37 ordu asteen, 217 egun, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukoa baita; eguneko lanorduak honela banatuko dira: 8:00etatik 15:00etara guztiendako derrigorrezkoa, eta gainerako 20 minutuak langile bakoitzak nola bete erabakita, malgutasunez, 7:40etik 8:00etara bitarte eta 15:00etatik 15:20era bitarte.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko.

4.-Zerbitzu anitzetako langileen lanaldia 7 ordu eta 20 minutukoa izanen da, denentzat, 7:30etik 14:50era bitartean. Garbitzaileen ordutegia, 7:00etatik 14:20era bitartean.

Etxarri Aranatz, 2012ko urtarrilaren 20an.

Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa

